

Denboraren makina


NAGORE IRAZUSTABARRENA

Mundua konkistatu zuen Bohemiako dirua



WWW.SEGUNDOASEGUNDO.COM

Ezkerrean, AEBetako egungo dolarrak. Azpian, XVII. mendean Mexikon sortutako dalerraren sinboloa.



MEXIKO, 1535. Karlos I.a Espainiakoak –edo Karlos V.a Alemaniakoak– agindu bat bidali zuen metropolitik kolonia berrira: egun Mexikok hartzen duen lurraldeko zilar meatzeetan Europan erabiltzen ziren *thaler* izeneko txanponak egiten hasi behar zuten. Thaler izena Joachimthaler –zilarretan aberatsa zen Bohemia iparraldeko ibarratoponimoaren laburdura zen.

Mexikoko espainiarrek agindua bete eta *dalerrak* egiten hasi ziren, *th* soinua ezezaguna baitzen beraientzat. Txanponarentzat sinbolo bat ere asmatu zuten: kontinente zahar eta berriko kostaldeek osatzen zuten irudiari Herkulesen bi zutabeak erantsi zizkioten; hau da, bi marra bertikalez gurutzatutako S-a ipini zuten txanponetan. Pentzatu ere ez zuten egingo mende batzuk geroago irudi hori aberastasunaren ikur bilakatuko zenik.

Izan ere, iparraldeko kolonia ingelesetan ez zen moneta berria erabiltzen. Ez zuten zilar meatzerik eta iristen ziren txanpon guztiak birziklatzen zituzten. Trukerako tabako hostoak, larrua, gatza, maskorrak eta, ingeles

kontrako iraultza hastear zela, diru-papera erabiltzen zituzten.

1751n Benjamin Franklinek Amerikako kolonietan moneta sortzeko eskaera egin zuen Ingalaterrako Parlamentuan. Jasotako ezezko biribila medio, inprenta bat erosi eta kontinental izeneko diru-papera inprimatzen hasi zen.

Kontinentala Amerikako Iraultza finantzatzeko baliabide ezinbestekoa izan zen, baina independentzia lortu eta gero, tresna iraultzaile bikaina arazo ekonomiko bihurtu zen. Diru-papera neurrigabe inprimatzen zenez, kontinentalaren balioa egunetik egunera depreziatzen zen. Moneta berria behar zuten.

Baina berria sortu ordez, ordurako kontinente zaharrean baztertuta zegoen daler mexikarra propiotzat onartu zuten 1792ko apirilaren 4an. Berehala *dollar* esan zioten txanponari, fonetika ingelesak eraginda. Horrenbestez, Joachimthaler dalar bihurtu zen, zilarra paper, eta Amerikako ingeles koloniak munduaz jabetu ziren, Herkulesen zutabeek zeharkatutako S-a banderatzat hartuta.

Arrastoak

Ongi etorriak Youtube museora

YOUTUBE, bideoak biltzen dituen web ezaguna, munduko gero eta museo eta elkarte gehiagok erabiltzen dute beren bildumak eta jarduerak zabaltzeko.

Erakunde horien artean Mexikoko Antropologia eta Historia Museoa nabarmentzen da. Izan ere, museo horrek antolatu dituen erakusketei, indusketa lanei eta herrialde bereko beste museo batzuei buruzko 180 bideo ipini berri ditu Youtuben. Horien erreproduktzio kopuruak medio, ekimena arrakastatsua izan dela diote arduradunek.

Besteak beste, New York-eko Metropolitan museoak, Parisko Louvrek edo Kataluniako Arkeologia Museoak ere bideoak jarri dituzte webgune ospetsuan.

WWW.WIKIMEDIA.ORG

